

HARAGITARAKO OILASKOAK

EKOIZPENA EKOLOGIKOAN EGOKITZEKO BIDE-ORRIA

Zure produktuek ekoizpen ekologikoaren eskakizunak bete ahal izateko gida



**Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua**

Financiado por:



AURKIBIDEA

- [Inoiz galdetu diozu zure buruari eredu konbentzionalak baliozko izaten jarraituko duen 10 urte barru?..... 3](#)
- [Zertarako balioko dizu bide-orri honek? 4](#)
- [“Ez dut uste ekologikoa hobeagoa denik” pentsatzen duen horietakoa bazara 5](#)
- [Zertan ezberdintzen da ekoizpen ekologikoa orain arte egin duzunetik..... 6](#)
 - [Bilakaera..... 6](#)
 - [Animaliak..... 6](#)
 - [Parkeak..... 6](#)
 - [Maneiuia 7](#)
 - [Oilategiak 7](#)
 - [Elikadura..... 8](#)
 - [Tratamentuak..... 8](#)
- [Zein da ziurtapen prozesuaren kostua? 9](#)
- [Ekologikoan egoteagatik ere badaude laguntzak 10](#)
- [Alta eskatzetik ziurtapeneraino, pausuz pausu..... 11](#)

INOIZ GALDETU AL DIOZU ZURE BURUARI...

EREDU KONBENTZIONALAK BALIOZKOA IZATEN JARRAITUKO OTE DUEN 10 URTE BARRU?

Jakingo duzunez, NPBren ordainketa gehigarriak ingurumenerako onuragarriak diren praktikak konpentsatzeko sortuak izan ziren. Ordainketa gehigarri horien helburua da ekoizleek aparteko sari bat jasotzea merkatuak ordaintzen ez dituen -eta baserritarrek beraien egunerokotasunean egiten dituzten- zereginengatik. Izan ere, erosleak produktuagatik ordaintzen du, baina ez du ordaintzen lurra, fauna edota lursailen ertzetako landaredia zaintzeko nekazariak eta abeltzainak egiten duzuen lanagatik. Hala ere, kontsumitzaileak astebururo dute aukera baserritarrek “doan” zaindutako landa eremuaz gozatzeko.

2050era arte jarraitu beharreko ildoak zehazten dituen “**Itun Berde**”ak argiki erakusten du ingurumenarekin abegikorrakoa den nekazaritza eta abeltzantza-eredu baten sustapena ez dela moda iragankor bat, epe luzerako estrategiak dituen plan bat baizik. [“Baserritik mahaira”](#) da estrategia horietako bat. Helburua da egun elikagaiak ekoizteko dugun sistema eraldatzea, jasangarritasun-irizpideak betetzen dituen sistema batean bihurtuz. Beste batzuen artean, erabilitako nekazaritza-azaleraren % 25 ekoizpen ekologikora bideratzea du helburu.

Hori guztia, jakina, [NPB berrian](#) islatzen da: Oinarrizko Laguntzek ingurumen- eta klima-baldintzak dituzte, eta diru-horniduraren %40 hartzen dute; Eko-erregimenek ingurumenerako onuragarriak diren nekazaritza-praktika batzuk barne hartzen dituzte, eta zuzeneko laguntzen %25 izan behar dutela ezarrita dago; Landa Garapenerako Neurrietan, aldiz, diru-horniduraren %35 ingurumen arloko neurrietara bideratu behar direla ezarrita dago. Finean, dirua ekoizpen iraunkorrera joaten ari da. Eta, nork jaso ditzake laguntza horiek guztiak burua gehiegi hautsi gabe? Bada... Ekologikoan ziurtatuta daudenak. Ingurumen-neurri horiek betetzen direlako ekoizpen ekologikoaren eremuan. Ez da aparteko ezer egin behar.

Baina gida honen helburua ez da ekoizpen ekologikoa egiteagatik eskuratu daitezkeen laguntzez informatzea. Ez baitira laguntzak izango epe ertain-luzean sektorea bizirik mantenduko dutenak. Azken urteetan ekoizpen konbentzionalen ematen ari den joerak erakusten du, laguntzak laguntza, geroz eta zailagoa dela ekoizpena mantentzeko beharrezkoak diren horniduren prezio-gorakadak jasatea. Intsumoek ia %30 egin zuten gora 2022an, benetako astakeria urte bakar batean. Eta ez dira jaitsiko. Beste era batean esanda: 2022an, ekoizpenetik 1€ jaso ahal izateko nekazariak [0,55 € gastatu behar izan zituzten](#) ekoizpenera bideratutako intsumoetan. Ahaztu gabe, noski, bestelako hornidurak, gestoria...

Bitartean, abeltzainen errenta, hau da, ekoizleek poltsikoratzen duten dirua mendearen hasieran zena baino %21 gutxiago da. Nora joaten ari da etxaldean errentagarritasuna?

ZERTARAKO BALIOKO DIZU BIDEORRI HONEK?

Ikusten ari zara joera dela ekologikorantz eraldaketa progresiboa egitea. Ekoizle batzuek argi ikusten dute, eta hala ere zalantzak dauzkate. Honen arrazoia, askotan, informazio gabezia bat da: zaila ikusten dute, benetan zertan datzan jakin gabe. Are gehiago, askok uste dute ez dutela lortuko. Baina ziurtagiria lortzea urratsez urrats egiten den zerbait da. Kontua da gauza gutxi batzuk aldatzea, batez ere "gauzak beti bezala egiteko" ohitura aldatzea. Egoera batzuetan, "beti egin izan da horrela" errepikatzearen poderioz, badirudi modu tradizional hori dela onena, nahiz eta ez izan. Lehengo eredutik gauza onak hartu beharko dituzu, eta hain onak ez direnak hobetu.

Noski, asko praktikatu beharko duzu. Eta ondo ari ote zaren zalantzak izanda ere, aurrera egin... Trantsizio-urte batzuk beharko dituzue, bai zuk eta baita zure behiek, zure ustategian eta funtzionatzeko moduan aldaketak egin eta ekoizpen onak lortu arte. Hori dena prozesuaren barnean dago. Baina ez du zertan zaila izan behar, gida honekin jakin dezakezu zein pieza erabili eta nola kokatu.

“EZ DUT USTE EKOLOGIKOA HOBEAGOA DENIK” PENTSATZEN DUEN HORIETAKOA BAZARA

Esango nuke gida hau irakurtzen ari bazara ez dela jakin-minagatik bakarrik. Ziur aski, jakitun izango zara gauzak egiten ari ziren modua ez dela jasangarria ingurumenerako, ezta zure poltsikorako ere.

Esan gabe doa ekoizle ekologikoak ez direla ekoizle konbentzionalen lehiakideak: talde berdineko partaideak dira. Finean, ekoizpen ekologikoan garatu den jakintza, hein handi batean, eredu konbentzionallean egindako ikerketetan oinarritzen da. Izan ere, ikusten zen ohiko praktika batzuek ingurumen-ondorio kaltegarriak zituztela, eta ez zirela iraunkorrak denboran. Oraindik asko dago ikertzeko. Ez gara ezagutzaren % 100era iritsi, baina badugu eredu iraunkorretarako trantsizioa hasteko oinarri nahikoa, ustategien biziraupena arriskuan jarri gabe: belardiak egoera onean mantentzen dituzten artzaintza-sistemetan aurrerapenak izan dira, abereen elikadura osatua izateko eta beharrezko kalitate-profilak lortzeko sistemak ere sortu dira, elikaduraren oinarria larreak izan arren. Egiaztatu da ere botika alopaticoak ez direla zertan oinarria izan aziendaren osasuna bermatzeko orduan: olio esentzialen, fitoterapiaren, homeopatiaren eta abarren bidez ere egin daiteke. Jakina, abere-zama etxaldeak daukan lurralde-oinarrira eta eskura dauden instalazioetara egokitzean dago gakoa.

Alegia, eboluzio bat egon da, baina egia da ekoizpen-prozesu berri horiek sistematizatzeko eta partekatzea falta dela, baita eskuliburu espezifiko gehiago garatu behar direla ere. Emaizak ez dira berehalakoak izango (lurrak, animaliek eta aziendaren kudeaketaz den pertsonak egokitzen-aldi bat behar dute), baina esanguratsuak dira. Ziklo naturalak eta animalien berezko portaera errespetatzen dituzten sistemak praktikan jarri, animalien osasuna hobetzen da, hainbat arrazoiengatik:

- Aske mugitzen diren eta, elikatze orduan, landare-espezieen artean aukeratu dezaketen animaliak osasuntsuago daude, egoera fisiko hobea eta antibiotikoen premia txikiagoarekin.
- Belarraren edota gehigarrien bidez dietan mikroorganismo ongileak sartzeak barneko eta kanpoko parasito-kopuruak txikiagoak izatea ere badakar.
- Aurreztuko ez dituzunak euri-jasak eta istripuak dira. Lehenago aipatu da kluba berdina dela guztientzat.

ZERTAN EZBERDINTZEN DA EKOIZPEN EKOLOGIKOA ORAIN ARTE EGIN DUZUNETIK

Batzuetan, errealtatearekin bat ez datozen espektatibak ditugu. Bada uste duenik ekoizpen ekologikoa produktu batzuk beste batzuentatik aldatzea besterik ez dela, eta kito. Baina hori ez da ekoizpen ekologikoa. Badira, halaber, pausoa eman arte urteak itxaron zituzten etxaldeak, pentsatzen zutelako mila aldaketa egin beharko zituztela eta, azkenean, parkearen dimentsioa oilo kopurura egokitu besterik ez zuten egin behar izan, eta agian oilategiaren xehetasun batzuk aldatu eta elikadura aldatu.

Jarraian, ekoizpen ekologikoaren araudia betetzeko alderdi nagusiak laburbilduko ditugu. Edonola ere, kontuan izan: naturarekiko errespetu handia duen eta araudian ezarritako guztia betetzen duen ekoizpen-metodo bat jarraitzen baduzu ere, zure ekoizpena “ekologikoa” izan dadin eta merkatuan zure produktuak “ekologiko” aipamenarekin saldu ahal izateko, ziurtapen-prozesu baten sartu beharko zara.

BILAKAERA

- Larre eta bazka iraunkorretarako (parkeak) azalerak 2 urteko bilakaera igaro beharko du. Denbora horretan, maneiak bat etorri behar du araudiarekin, baina oraindik ezingo dituzu merkaturatu zure produktuak zigilu ekologikoarekin.

ANIMALIAK

- Ustiatzearen sartzen diren txitak ekoizpen ekologikoko unitateetan jaio eta hazi beharko dira
- Arraza eta leinu autoktonoei edo dibertsitate genetiko handia dutenei lehentasuna ematea gomendatzen da, aire zabalean hazteko egokituago daudelako. Leinu horiekin lan egiten ez bada, hiltzeko gutxieneko adina 81 eguneko izango da.
- Animalia mutilatzen duten praktikak saihestu behar dira, hala nola hegoak edo mokoa moztea
- Animalien jatorriaren egiaztagiriak erregistratu eta gorde egingo dira; loteka identifikatuko dira; sartutako animalien albaitaritza-erregistroak (txertaketa-gidak); noiz iritsi diren.

PARKEAK

- Ekologikoa izateko, nahitaezkoa da ustiatzeari lotutako nekazaritza-azalera bat izatea, gure oiloen abere-zama bere gain har dezakeena. Onartutako gehieneko karga 170kg nitrogeno/ha da urtean, hau da, 580 oilasko/ha. Oilasko gehiagorekin lan egin nahi badugu, azalera baliokidea

eduki beharko dugu, edo akordioak itxi beharko ditugu falta zaigun azalera duten nekazari ekologikoekin.

- Parkeek gutxienez 4 m²-ko azalera izan beharko dute abere bakoitzeko aire zabaleko espazioan (2,5 m² oilategi mugikorren sistemarekin lan eginez gero), eta landaretzak estaliko ditu nagusiki. Gainera, babeslekuak izan beharko dituzte oilaskoak harraparien edo muturreko beroaren aurrean babesteko.

MANEIOA

- Oilaskoek, gutxienez, beren bizitzaren heren bat izan beharko dute aire zabalean. Eta kanporako etengabeko irteera erraztuko da egunez, ahalik eta adin laburrenetik, betiere baldintza meteorologikoek horretarako aukera ematen badute.
- Oiloak kanpora ateratzen diren egunen erregistroa eraman behar da.
- Argi naturala argi artifizialarekin osatu ahal izango da, baina oiloek gauez ilunpetan 8 orduko atsedenaldia dutela bermatu behar da.

OILATEGIA

- Kaiolak ezin dira erabili.
- Oilategiek argi naturala eta aireztapena izan behar dituzte, eta animaliei aske mugitzeko nahikoa leku eman behar diete. Gainera, azaleraren heren bat, gutxienez, lurzoru lau ez-irristakorrez osatuta egongo da, eta lastozko, txirbilezko edo hareazko oheak izan beharko dituzte.
- Baldintza zehatz batzuk bete beharko dira azalerei, kota-kopuruari, parkeetarako irterei edo habia-guneei dagokienez. Adibidez, oilategiak m² bakoitzeko 21 kg-ko pisu bizia izatea ahalbidetuko duen azalera izan beharko du.
- **Oilaskoak gizentzeko azalera erabilgarria ez da 1.600 m²-tik gorakoa izango.**
- 12 eguneko hustualdi sanitarioa egin beharko da lote bakoitza kendu ondoren eta beste bat sartu aurretik, Euskadiko [osasun-araudiari](#) jarraituz. Ekoizpen ekologikoari buruzko erregelamenduak instalazioak eta tresnak garbitzeko eta desinfektatzeko erabil daitezkeen produktuen zerrenda mugatu bat jasotzen du. Erabilitako produktuaren izena, substantzia aktiboa, aplikazio-data eta -lekuak eta huste-aldi sanitarioa erregistratu behar dira.

ELIKADURA

- Emandako pentsuaren %30, gutxienez, ustiategitik bertatik edo eskualde bereko beste batzuetatik etorriko da (150 km-ko erradioan). Eguneroko anoari bazka freskoak edo lehorrak gehituko zaizkio.
- Meteorologiak laguntzen ez badu eta oiloak ezin badira parkeetara atera, forrajeak eman beharko dira, haien nutrizio-beharak asetzeko.
- Pentsu ekologikoek edo bilakaerakoek animaliaaren garapen-etapara egokituta egon behar dute. Ezin da elikadura murriztua eman, ez eta elikadura behartua ere.
- Aminoazido sintetikoak ez dira onartzen.

TRATAMENDUAK

- Animalien osasuna prebentzioan oinarrituko da, arrazak eta leinuak aukeratuz, abereak kudeatuz, kalitatezko elikaduraz, ariketaz, populazio-dentsitate eta bizitoki egokiez eta osasun-baldintza onez hornituz, eta oilategiak, esparruak eta ekipoak desinfektatuz.
- Albaitaritzako sendagai immunologikoak erabili ahal izango dira, baina ez da baimentzen sendagai konbentzionalak prebentzioz erabiltzea. Debeku horretatik kanpo geratzen dira Administrazioak ezarritako urteko kontrol-planen barruan emandako tratamenduak (derrigorrezko kanpainak).
- Prebentzio-neurriak hartu arren animaliak gaixotzen edo lesionatzen badira, medikamentu alopaticoak erabili ahal izango dituzu, antibiotikoak barne, betiere albaitariaren agindupean. Hala ere, itxaronaldi bat errespetatu beharko duzu, sendagaiaren erabilera-orrian ezarritako aldiaren bikoitza.
- Produktu horien administrazioaren erregistro bat eraman behar da, eta bertan zehaztu behar da zergatik eman behar izan den (albaitariaren errezeta), produktuaren izena eta substantzia aktiboak, emandako jarraibideak, aplikazio-datak eta tratatutako animaliak, eta itxarote-denbora produktuak merkaturatu arte.

ZEIN DA ZIURTAPEN-PROZESUAREN KOSTUA

Euskadin kontrol erakunde publikoa daukagu, horregatik, kostua zati batean diruz lagunduta dago, bai ziurtapenari dagokionez eta baita sustapen eta komunikazio ekintzei dagokienez. Beste zatia Euskadiko Eragile Ekologikoen Erroldan izena emanda dauden norbanako eta enpresek sustengatzen dute. Alegia, urtea bukatzen denean, eragile bakoitzari dagokion kuota kobratuko zaio berak aukeratutako kontu korrontetik.

Urteroko gutxieneko finkoa 90€ da, honi inskribatutako hektarea kopuruaren arabera kalkulatzen den kopuru aldagarria gehitzen zaio. Norberaren ganadua elikatzeko erabiltzen diren bazkak, larreak eta belardiak ez dira kontuan hartzen zenbateko aldagarria kalkulatzerakoan, bai ordea salmentara bideratutako bazka ekoizten den lursailen azalera. Jarraian, erreferentziazko adibide batzuk::

- 200 oilasko badira, 4,80€ gehitu beharko litzaizkioke; beraz, 94,80€ urtean.
- 1670 oilaskoentzat, 40€ gehitu beharko litzaizkioke kuota finkoari, eta, beraz, 130€ urtean.
- 3000 oilaskoentzat, kuota finkoari 71,86€ gehitu beharko litzaizkioke; beraz, urtean 161,86€ izango lirateke.

Izena eman berri dutenentzat, % 50eko murrizketa aplikatzen da lehenengo kuotaren ordainketan.

Ekologikoan egoteagatik ere badaude laguntzak

Bai, badira laguntza gehigarri batzuk ekoizpen ekologikorako. Baina benetan, ez dadila hau izan hori egitera bultzatuko zaituen faktorea. Izenak berak dio: "Laguntzak" dira, beren eginkizuna da hain beharrezkoa den trantsizio horretan laguntzea. Eta ingurumena, paisaia eta biodibertsitatea mantentzeko egiten duzun lanaren kostuak ordaintzen laguntzeko. Konpentsazioak dira, beraz, ez zenituzke diru-sarreratzat hartu behar.

Erabakia hartzen baduzu, kontuak egin dituzulako izan dadila. Ekologikoan ekoiztea gutxiago kostatzen zaizula ikusten duzulako, eta produktua garestiago saldu dezakezulako. Egin zure kalkuluak, eta erabaki.

2023tik aurrera, Landa Garapenerako Neurriak ere NPBan bilduta egongo dira. Hiru talde handi izango dira. Esteka honetan, [NPB berriari buruzko laburpen-dokumentu bat duzu](#). Laguntza bananduetan, ekoizpenarekiko independenteak diren eta baldintzazkotasun indartua duten laguntzetan alegia, eko-erregimenetara (klima eta ingurumena) atxikitu ahal izango zara. Eta Landa Garapeneko Neurrietan, honako laguntza hauek jaso ahal izango dituzu: Ekoizpen ekologikoaren konpentsazioa ingurumen- eta klima-konpromisoengatik edota Kalitate-erregimenetan parte hartzeagatik.

Edonola izanda, laguntza hauetatik egokituko litzaizukena jakin ahal izateko, informazio pertsonalizatua ezinbestekoa da. Zer dagokizun eta zer baldintza dauden jakiteko, hurbildu zaitetz zure Eskualdeko Nekazaritza Bulegora.

Badago eragin esanguratsua duen laguntza bat: Ekoizpen ekologiko ziurtatura trantsizioa egiteko laguntza. Honen barrua, badira aholkularitza kontratatzeke lerroak, 1.500 € artekoak eta % 100ean diruz lagunduak. Laguntza honek badu ere trantsizioaren bideragarritasuna egiaztatzeko azterlanak egiteko lerro bat, baita landa-bisitak antolatzeke beste bat, beren jardunbide egokiak partekatu nahi dituzten ekoizle erreferenteak ezagutu ahal izateko...

Azkenik, aipatu Eusko Jaurlaritzaren Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak laguntzak ematen dizkiela Kalitate-erregimenetan aurreneko aldiz parte hartzeagatik. ENEEK-Ekolurratik tramitazioan laguntasuna eskaintzen zaie berauek jasotzeko baldintzak betetzen dituztenei.

ALTA ESKATZETIK ZIURTAGIRIRAINO, PAUSUZ PAUSU

Ziurtapena berme sistema bat da kontsumitzailearentzat, non erakunde inpartzial batek bermatzen duen ekoizpena araudian ezarrita dauden baldintzen arabera egiten dela. Euskadin, ziurtapena publikoa da eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEEK-Ekolurra) egiten du. Bere kontrola Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak gainbegiratzen du, berau baita Agintaritza Eskuduna.

Eskaera-prozesua oso erraza da. Gida honen prestaketarako eragileekin egin ziren elkarriketetan guztiek baieztatu zuten prozesua ez dela batere zaila, eta lagunduak izan zirela uneoro. Zailena da ulertzea zein den izapidetan lehenengo eta zein datorren ondoren... baina horretarako daukazu hau esku artean.

1. INFORMAZIOA, DIAGNOSTIKOA ETA INSKRIPZIOA

Izan diagnostiko bat eskatzeko zein, oso argi baduzu, Euskadiko Eragile Ekologikoen Erroldan alta hartzeko, Kontseiluarekin harremanetan jar zaitezke sustatu@ekolurra.eus posta elektronikoan edota 946 271 594 telefonora deituta. Kontseiluko ikuskatzaile bat zurekin harremanetan jarriko da bisitarako data finkatzeko.

Diagnostiko batekin hastea erabaki baduzu, bertan adieraziko zaizu zure jarduera ekologikoan ziurtatzeko moduan dagoen edota, hala balitz, zeintzuk aldaketa egin beharko zenituzkeen araudi ekologikoa betetzeko.

Zure deiaren arrazoia izena ematea bada, ikuskatzailearen bisita jasotzen duzunean izen-emate eskaera beteko duzu, baita ziurtapen akordioa eta jardueraren memoria deskribatzailea. Horrez gain, ikuskatzaileak ziurtapenaren xehetasunak azalduko dizkizu, baita jarraipen bisitetan aztertzen diren puntuak zein gorde beharko dituzun erregistroak ere. Zure alta gauzatzeko beharrezkoak diren gainontzeko izapideak Kontseiluko teknikariek konprobatuko dituzte, zuk ez duzu horretaz arduratu beharko.

2. ERROLDAN INSKRIBATZEA ETA HASIERAKO BISITA

Behin dokumentazioa gainbegiratuta eta dena ondo dagoela ziurtatuta, Euskadiko Eragile Ekologikoen Erroldan inskribatuta egongo zara, eta zenbaki bat egokituko zaizu. Zenbaki horrek identifikatu eta ordezkatzeko zaitu ziurtapen ekologikoarekin harremana duen guztiarekin. Ekolurraren webguneko bilatzailean ikusgarritasuna izango duzu ere.

Momentu honetatik aurrera hasten da ere ziurtapen prozesua. Hau da, ekoizpen ekologikoaren arautegia betetzen duzula ebaluatzen hasten da. Izan ere, lehenengo urte horretan hasierako bisita jasoko duzu, non aztertuko den zein neurritan betetzen ari zaren arautegia:

- Memorian adierazitakoaren arabera jarduten zarela
- Intsumoak, lehengaiak eta ekoizpen-prozesuak ekoizpen ekologikoaren arauak betetzen dituztela (intsumo-erosketen fakturak aztertuko dira)
- Egiten duzuna erregistratzen duzula zure laboreen koadernoan
- Neurriak hartzen dituzula baimenduta ez dauden produktuekin kutsadura ekiditeko.

Debekatutako substantziarik erabiltzen ez duzula egiaztatzeko, laborategian aztertzeko laginak jaso daitezke.

BILAKAERA EPEA

Bilakaera epeak lurra, animaliak eta zu zeu maneu-aldaketara egokitze balio du; aldi berean, aurreko praktiken hondakinak ezabatzen dira, araudi ekologikoarekin bat datozen ekoizpen-prozesu berriak ezartzen dira, edo ezagutza berriak eskuratzen dira.

*Hegazti-hazkuntzaren kasuan, bilakaera-aldia parkeei bakarrik eragiten die, eta urtebete igaro beharko dute ekologikotzat kalifikatu arte. Aldi horretan, nahiz eta oilaskoak ekologikoak izan jaiotzen direnetik, araudiak ezartzen duen bezala, ezin izango dira ekologikotzat saldu parkeak bilakaeran dauden bitartean. Hori dela eta, zenbait hegazitzainek parkeak inskribatzea eta, urtea igaro ondoren, animaliak sartzea erabakitzen dute. Hala ere, **ekoizpen ekologikoagatiko laguntzak eskatzeko asmoa baduzu, kontuan hartu behar duzu aldundiek irizpide hau dutela ezarrita: larreek eta animaliek izena emanda egon behar dute laguntzak jaso ahal izateko.***

3. ERABAKIA

Hasierako auditoretzatik sortutako dokumentazio guztia Ziurtapen Batzordeak aztertuko du. Batzorde honek egiaztatzen du bai egiten dituzun prozesuak, bai erantsitako dokumentazioa egokiak direla, arautegia betetzen dela, eta horretan oinarrituta erabakia hartzen da. Balorazioa positiboa bada, Zuzendariaren onespena jasotzeko pasako da.

4. URTEKO JARRAIPENA ETA ZIURTAGIRIEN JAULKIPENA

Parkeen bilakaera-urtea bete ondoren, eta jarraipen-bisita egokia egin ondoren, ziurtagiri ekologikoa emango da. Ziurtagiri horrek baimena ematen dizu inskribatuta dituzun produktuetan Ekologikoa/Biologikoa/Organikoa (eta beste modalitateak) aipamena erabiltzeko. Arau hausterik badago, zuzendu egin beharko dira, berritze-prozesuarekin jarraitu ahal izateko. Arau haustearen larritasunaren arabera, litekeena da bilakaera-aldi berri bat ezartzea, ekoizpenaren zati bat deskalifikatzeko edo, kasurik larrienetan, ziurtagiria kentzeko.

Zure produktuak etiketatuta salduko badira, ziurtatu beharko duzu etiketan ekoizpen ekologikoari buruz agertzen diren aipamenak zuzenak direla. Kontseiluko teknikariekin egindako kontsulta batek argituko dizkizu izan ditzakezun zalantzak.

Adostasun-ziurtagiriak urtebeterako balio du, eta, beraz, beharrezkoa da maneiuarekiko konfiantza aldian behin mantentzea eta berritzea. Horretarako, Kontseilua informatuta eduki behar duzu, eta jardueraren jarraipena erraztu, urteko auditoretza bat eginez, bai eta beste auditoretza gehigarri eta/edo ezohiko batzuk ere, aldez aurretik abisatu gabe, egindako arriskuen ebaluazioaren arabera programa daitezkeenak.